



2024SECG0002  
2.bilera: OHIKOA 2024/03/21

## **TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA**

BILERA ZK.: 2/2024  
EGUNA: 2024/03/21  
HASIERA ORDUA: 17:00  
AMAIERA ORDUA: :17:15  
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

### **BERTARATUAK:**

Alazne Txurruka Allika, alkatea.  
Jon Riaño Ojanguren, bigarren alkateordea.  
Isidro Aristi Oruezabal, Elkarrekin Orain Deba

### **Bertaratzea desenkusutzen dute:**

Asier Urain Buenetxea, lehen alkateordea.  
Monica de Prado Paniagua, hirugarren alkateordea.

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK**

### **1. Aurreko bilkuraren akta onartzea, hala badagokio.**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko otsailaren 29an eginiko bileraren akta aurkeztu zen, eta bertaratutakoek, aho batez, akta onartu zuten.

### **2.- Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak eta zereginak.**

2024ko otsailaren 29an eginiko bileran onartu zen osoko bilkurari proposatzea Tokiko Gobernu Batzarraren bileren aldizkakotasuna aldatzea, eta horiek, eta 15 egunetik behin izan beharrean, hilabetean behin izatea, osoko bilkuraren ohiko bileraren egun berean, 17:00tan.

Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak osoko bilkuraren ohiko bileraren egun berean egitea eraginkortasun gutxi izan dezakeela irudituz, proposatu zen jatorrizko proposamena aldatzea eta bilera horiek osoko bilkuraren bileraren egun berean izan beharrean, astebete lehenago izatea proposatzea, horrela, astia egongo litzateke osoko bilkuran aztertu beharreko gaiak landu eta, hala badagokio, osoko bilkuraren gai zerrendan garaiz sartzeko.

Bertaratutakoek, aho batez, onartu zuten osoko bilkurari eginiko jatorrizko proposamena aldatzea eta Tokiko Gobernu Batzarraren bilerak osoko bilkuraren bileraren egun berean izan beharrean, astebete lehenago izatea proposatzea.

### **3.- Tokiko Gobernu Batzarraren zereginak.**

Aztertu ziren indarreko araudiak alkateari esleitzen dizkion eskumenak, alkatetzari Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu dakizkiokeen eskumenak proposatze aldera.

Horrela, aho batez erabaki zen alkatetzari proposatzea eskumen hauek Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea:

1. Aurrekontu-proiektuak prestatzea osoko bilkurak onar ditzan.
2. Onartutako aurrekontu eta plantillarekin bat etorritz, enplegu publikoko eskaintza eta hautapen prozesuen oinarriak onartzea
3. Saritzea eta zigortzea korporazioko langile guztiak, eta behin betiko eta finkoak ez dien lan ordainsari osagarriak banatzea.
4. Langile guztien diziplina-espedienteen instrukzioa agintzea, eta, hala dagokionean, langileak ohartaraztea eta horien behin-behineko etenaldia erabakitzea.
5. Osoko bilkurari esleitu ez zaizkion hirigintza-plangintzako tresnak behin betiko onartzea.

Behar bezala arrazoitutako urgentzia edo larrialdiak direla medio, Alkatezak eskuordetuko diren gai ei buruzko erabakiak hartu ahal izango ditu, eta erabaki horien berri emango ditu Tokiko Gobernu-Batzarraren hurrengo bilkuran, berretsi daitezten.

Horiek horrela, aho batez, erabakitzen da osoko bilkurari proposatzea Tokiko Gobernu Batzordearen bileren maiztasuna aldatzea, eta bilerak publikoak ez izatea onar dezan.

### **4.- Tokiko Gobernu Batzarraren bileren aktak.**

Aho batez erabaki zen Tokiko Gobernu Batzarraren bileren aktak Udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiei helaraztea, horiek onartu eta hamar eguneko epearen barruan.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 17:15ean amaitu zen Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Joseluis Salaberri Iñarra  
Idazkaria



Alazne Txurruka Alika  
Alkatea

